



SARRERA

Lehen Hezkuntzako garaian oinarrizkoa da garapen kognitibo eta sozio-afektiboa errespetatzea, egoera berrien antolaketa ahalik eta modu naturalean mantenduz, haur bakoitza kontuan izatea beharrezkoa delako. Lehen Hezkuntzako ikasleek egoera berrien aurreikuspena behar dute, ziur sentitzeko eta norberaren autonomia eta oreka lortzeko.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira.

Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketa- prozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



NOLAKOA DA ANIMALIA BAKOITZA?

Abeletxean bisitatuko ditugun animalia askori, gizakiok etiketa edo ustezko ezaugarriak ipintzen dizkiogu, egiazkoak al dira guztiak?

Jarduera

Animalien irudiak jarriko dira, irudiak azpian hutsune bat izango du eta hemen ikasleek animalia hauei loturiko hitzak edo irudi sinbolikoak kokatu beharko dituzte. Adjektiboak hitzez edo irudiz errepresenta daitezke.

Ikasleen ustetan animali bakoitzaren hitzak ipinita, Ekoguneko bisita ostean, zuzendu egingo dute.

Hala ere, ez du zertan hitz eta irudi bakoitza animalia batekin erlazionatzea, baina estereotipoetatik irteteko ondokoa jakitea komeni da irakasleak.

- Txerriak abeletxeko animaliarik garbienak dira, lokatzaz estaltzen dira, beraien ilerik gabeko azala babesteko.
- Astoak oso adimentsuak dira, abeletxeko ate oro irekitzen adituak dira.
- Ardiak izuak dira, beren defentsa sistema, harrapariengandik ihes egitea denez, oso mesfidatiak dira.
- orokorrean animaliei ez zaie zarata eta talde handiak atsegin, beraz beren jokamoldea aldakorra da.
- Antzarak oso onak dira beren eremua taldean babesten, horregatik hasieran oldarkorrak dirudite.
- Ardiak larreko animaliak diren heinean, ahuntzak harkaitz eta sastraka artean ibiltzen ohituak daude.



Hitzak (mozteko)

AUSARTA

IZUA

GARBIA

ZIKINA

ZUHURRA

AJOLAGABEA

TREBEA

ADIMENTSUA

BURUGOGORRA

XIMAURRA

KAKABOROBILA

SASIAK

LARRUA

AKERRA

AHARIA

ADARRA

SALTARIA

ALFERRA

MENDIA

HARRIAK

ZEZENA

BELARRA

BASERRIA

ZULOAK

LOKATZA

LASAIA

ESNEA

SALTO!

URDURIA

MARRUA

Irudiak (mozteko)

Izutia



Zikina



Harkaitzak





Belarra







ekogunea
kutxa FUNDAZIOA





ekogunea
kutxa FUNDAZIOA





ekogunea
kutxa FUNDAZIOA

